

¡DONOSTIA!

ABOSTUAREN AZKEN GAUBEAN 1813-AN

AZALKAIA: ¡NEGARREZI

(Donostiya-ko uri-batzarrakurten egin dituben indar-neurtzeetan
Aldeera irabazia.)

*Kordel gaberik baztertutako
nere lira sar antziñakuak,
galduak dauzka auts estaliak
lengo kantacho otseztisuak:
gaur berritikan mintzatu nai det
astindurikan beldur isuak...
¡Koa je biziz daudegoi-beak
su indarrean biak batuak,
uri langille ta paketsua
kiskaldutze koamorratuak!*

*Gar gorrituak, odoi illunak,
azken ordua balitz bezela,
urrutiraño argitasuna
pintarratuaz zeru goibela;
ikara eta larritasuna
agitz zabaltzen ¡a! dituela,
chori begizko joen modura
menderatuak daukazkiela,
zerua berak gar bizietan
dana sutua dirudiela.*

*Begiak gora jaso eziñik
malkos beterik damu negarrak,
entzuten Tiran antsi tristeak,
entzuten ziran ¡a! deadarrak;
Donosti leial doakabea,
arrasatua ango su-garrak,
aize sartaitzen kolpe bultzadak
geyagotuaz bere indarrak,
iduriturik zeru ta lurra
egin zirala infemutarrak.*

*Itsas gañeko chimist pizkorrak
zartetakoka sua arturik,
gallendutzenzan izar garbiak
eskutatuaz izuz utzirik;
zeru azpiko karubitan
eudi modura jasak suturik,
bere eraso neurri gabeak
ainbesteraño ugariturik
isurtzen zala ots miretsian
sua t'odola iduriturik.*

Sutunpen otsa, illak taldeka,
antsi tristeak dana galkera,
biziak beren ichumenean
eche sututik igez kalera;
burni gorra chimisten gisa
bizitegira dana sutzera;
aur garrašiak amari deika
bide galdurik itsas aldera,
eta zijoan isil isilik
odol erreka kalean beera.

Amiltzen ziran dunbatakoka
garretan kale oso osoak,
egiñaz oju negargarriak
ama larritu leial gaisoak;
zeru altura erregutuzten
gurutzeturik fedez eskuak
zeuzkan tristeak, laguntza billa
etzimendua, gora jasoak,
libratutzeko trantze artatik
bereaingurubiotzekoak.

Atzerritikan arro satuak
anai otsean uri gurena,
billaukerian etsaitu ziran
lurraz jabetu ziradenean;
¿nora gidatu begiratuak
negarra bazan leku danean?
¿nola alchatu biotz eria
arkitzen dana añ illunean?
¿dira damuak jaso ezñiak
indarrak galtzen diradenean!

Sartu ziraden porrokatuaz
kontuan zeuden murru senduak,
urra ojuan danak naasiak
jo ta sutzeko amorratuak;
entzuten Tiran dar dar ikaraz
atabal otsak burni soñuak,
arro ta gogor ja! erasoaz
gudarti odol egarrituak,
utziaz laister uri gaisoan
deadarra ta antsi mintsuak.

Orro egiñaz leoi modura
pillan nastuak ordi taldeak,
chingarturikan arrapariak
echerik eche diru goseak:
izultzen ziran ikarak joak,
izultzen ziran zar da gazteak,
plazan, kalean, leku danetan
guziak ziran burniz pasiak
nola oiean iltzen zeguena
ala atingeru inozentiak.

Ala etzeukan barkaziorib
aur jαιο berri bularrekuak,
arkitu nairik biotz mugiran
ama onaren bere kolkua;
entzuten ziranaju larriak,
animendeiak mingarizkuak
burni zorrotza erakutziaz
isil azteko aien ojuak
ondoren parra lasai egiñaz
biotz gabeko ordi gaistuak.

Billaukeriaz arma kolpeka
lurreraturik dama gaztea,
alkarren leian danak algaraz
laizter izan zan burniz pasea;
gizon orditu odol-giroak
sentimentuen arras gabea
zeruetako aingerucho bat
bezel bezela inozentea
jizer eriotza eman zioten
ezin liteke sinistatzea!!

Ikusirikan dana galdua
eta labe bat uri mañtia,
¿nora igezka joan zitezkean
guzia bazan su-gar gorria?
¿nora chistuka aitzen baziran
burnia eta berungoria?
jan, oietatik larri itzuli
gizon zartua, gaiso eria
ichumenean tellatuetan
ia libratzen zuenbizia!


Mendi goitian lanbro urtsua
ezkutatuzten asten danean,
azaldutzen da eguzkiaren
argitasuna ondorenean ;
gure asaba mundutik juanak
martiriaren modu berean,
beren odola, beren anima
emanaz galtzen diradenean,
arkituko du bere alxia
Jaungoikoaren aldamenean.

.
.

Berritu eta edertutzeko
an Zubietan bildu ziranak,
biotz aundiko asaba zar ta
jal' martiriak ziraden danak,
Donosti maite doakabeko
karubi sutu artatik joanak,
lajiaz oroitz mingarrikoak
samin sartuta damuz eranak
prestatutzera koaje biziz
gaitz danaren gañ, lenengo lanak,

.
.
.

Alderdi Eder aukeratua?
leku alaisu eder garbia,
orche alchatu dute anziñaz
merezi zuen Oroikarria;
siñalatuaz bere lanketan
brontze sendoa, marmol zuria,
gure asabak birtutez eta
beren odolaz irabazia,
Donostia-ren oroitz tristea
¡baña beraren onragarria!



VICTORIANO IRAOLA